

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **115/2019 Foru Agindua, martxoaren 12koa. Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen deialdia onartzea. 2019ko eta 2020ko kanpainak**

Ikusirik Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritzako ekoizkinen merkatuen antolakuntza erkidea sortu zuena, eta Europako Batzordearen ekainaren 27ko 555/2008 Erregelamendua (EB) eta ondoko aldaketak, Kontseiluaren 479/2008 Erregelamendua (EB) garatzeko arauak ezarri zituztenak, laguntza programei, beste herrialde batzuekiko merkataritzari, ekoizpen ahalmenari eta ardogintzako sektoreko kontrolei dagokienez.

Esparru juridiko berri horretan, mahastizaintza arloko laguntza programak behar bezala kudea daitezen, ondoko araudiak garatu dira:

– Europako Batzordearen 2016/1149 Erregelamendu Eskuordetua (EB), apirilaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 1308/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duena, mahastizaintza sektoreari laguntzeko programa nazionaleri dagokienez, eta Europako Batzordearen 555/2008 Erregelamendua (EB) aldatzen duena.

– Europako Batzordearen 2016/1150 Betearazpen Erregelamendua (EB), apirilaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 1308/2013 Erregelamendua (EB) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena, sektoreari laguntzeko programa nazionaleri dagokienez, mahastizaintzari laguntzeko programei buruzko xedapenak arautzeko eta estatu kideek Europako Batzordeari aurkeztu behar dizkioten laguntza programei buruzko xedapenak arautzeko xedez.

Erkidegoko erregelamendu horiek guztiak araudi nazionalera egokitzeko, 597/2016 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, eman zen, 2014-2018 aldiko laguntza programaren neurriak mahastizaintza arloan aplikatzeko helburuz. Programa hori 2018ko uztailaren 31n amaitu zen eta, horren ondotik, beste bat onartu zen 2019-2023; era berean, 5/2018 Errege Dekretua, urtarilaren 12koa, eman zen, aipaturiko programak dakartzan neurriak aplikatzeko.

5/2018 Errege Dekretu horretan xedatutako araubideari buruzko laguntzen edukari dagokionez, geroago, 1363/2018 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, eman zen. Dekretu horrek aldaketak jasotzen ditu mahastiak sustatzeko, berregituratzeko eta birmoldatzeko neurriak aplikatzeko baldintzetan eta, gainera, esparru arauemaile berria gure herrialdean aplikatzeko programa garatzen duten xedapenak jasotzen ditu. Hala, II. kapituluaren 1. azpiatalean, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko alderdiak arautzen ditu, eta III. kapituluaren bigarren xedapen gehigarrian, Mahastizaintza eta Ardogintza sektoreko Laguntza Programen baldintzak 2014-2018 alditik 2019-2023 aldira eramateko alderdiak arautzen ditu.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako onartutako 26/2019 Dekretuak, otsailaren 26koak, mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko erkidegoaren arauetara Europako Erkidegoko araudia eta estatuko oinarritzako araudia garatzeko eta aplikatzeko arauak ezarri ditu, 2019-2023 aldira, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Mahastizaintza eta Ardogintza sektoreko Laguntza Programen edukia 2014-2018 alditik orain indarrean dagoen 2019-2023 aldira eramateko baldintzak ezartzen dituen xedapen gehigarri bakarrak dioenarekin bat, aintza hartu behar da 2018ko uztailaren 31n amaitu diren eragiketarak, baldin eta 2018ko urriaren 15a baino lehen ordaintzea egon ez bada, FEAGA 2019tik 2023ra doazen ekitaldien kargura ordainduko dira, eta ondorio horietarako, 597/2016 Errege Dekretuan,

abenduaren 5ekoan, xedatutako betekizun eta baldintzak baliozkoak izango dira. Izan ere, dekretu horrek xedatzen du 2014-2018 aldiko laguntza programaren neurriak mahastizaintza eta ardogintza sektorean nola erabili eta, horren haritik, ezartzen du 2018ko uztailaren 31ra arte onartu diren neurriak baina data horretan amaitu ez direnak likidatu edo ordaindu egingo direla FEAGA 2019tik 2023ra doazen ekitaldien kargura, 1636/2018 Errege Dekretuaren 37. artikulua jasotzen dituen zenbateko eta jardueren arabera, eta errege dekretu horretan bertan xedatutako betekizun eta baldintzei jarraiki betearaziko direla.

Kontuan hartu behar da 1363/2018 Errege Dekretuaren 35. artikulua epemuga ezartzen duela erakunde ordaintzaileek egindako ordainketen berri emateko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak funtsak berriro esleitu diezazkien autonomia erkidegoei. Epemuga hori ekainaren 30etik atzerago dagoen asteko ostirala izan ohi da; 2019ko ekitaldian, aipaturiko ostirala ekinaren 21a da.

Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileek astebete lehenagoko epea ezarrita daukala foru aldundietatik datozen ordainketa proposamenak jasotzeko eta, proposamenak zenbaketa horretan sartu ahal izateko, erakunde ordaintzaileari bidali behar zaizkio, beranduenez, 2019ko ekainaren 14an.

Aintzat harturik funts horiek berresleitu ondoren, soberakina 2019ko urriaren 15ean amaitzen den FEAGA 2018/2019 ekitaldiaren kontura baliatu ahal izateko, erakunde ordaintzaileak data hori baino lehen ordaindu behar du eta, hortaz, horri jakinarazteko epea, beranduenez ere, 2019ko urriaren 4a izango da.

Helburua da Erakunde Ordaintzaileari, ordaindu dezan, aurkeztea ahalik eta eskaera gehien ahalik eta luzapen txikienarekin; eta horretarako, helburu hori lortzea ahalbidetzen duten epeak ezarri behar dira, bai eta laguntza horren erakunde kudeatzaile Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren administrazio jarduerak eta kudeaketa egoki antolatu ere.

Kontuan hartu beharra dago jarduerak hasi ez direla ziurtatzeko landa bisitak (bisita hori nahitaezko betekizuna da lanak egiten hasteko eskaera egin ondotik, baina plana onartu aurretik) badakarrela ohiko prozeduran behar diren baliabideak baino askoz ere gehiago erabili behar izateak, berehala eta presaz egin behar delako eta, hortaz, beharizan hori benetakoa dela bermatzeko sistema bat hornitu beharko da. Horiek horrela, presazkotzat joko dira eta berehalako bisita egingo da ezarritako epe bakoitzaren lehen hamar egun baliadunetan egiten diren eskaeren kasuan. Aurreko guztian oinarri harturik, azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuak, mahastizaintza eta ardogintza sektoreari 2019-2023 aldira laguntzeko programaren neurriak ezartzen duenak, eta otsailaren 26an onartutako Eusko Jaurlaritzaren dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintza sektorearen erkidegoaren laguntza neurriak garatu eta aplikatzeari buruzkoak, xedatzen dutenarekin bat etorriz eta dauzkadan eskumenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko mahastiak berregituratzeko eta/edo birmoldatzeko laguntzak eskatzeko 2019ko deialdiaren prozedura onartzea. Alderdi horiek 479/2008 Erregelamenduaren (EB) 11. artikuluan jasotzen dira, 1663/2018 Dekretuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia era Azpiegiturak Garatzeko Sailaren otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza eta ardogintza sektorearen erkidegoaren laguntza neurriak garatu eta aplikatzeari buruzkoak, eta horren xedapen osagarriek, ezarritako baldintza eta betekizunen arabera, FEAGAtik datozen erkidegoaren funtsen finantza esleipenaren bidez. Horretarako, ondoko epeak ezarri dira laguntza eskaerak jasotzeko:

- 2019ko ekitaldiari dagokionez, honako foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik 2019ko apirilaren 12ra arte, bi egun horiek ere aintzat hartuta.
- 2020ko ekitaldiari dagokionez, 2019ko urriaren 16tik azaroaren 30era arte, bi egun horiek ere aintzat hartuta.

Bigarrena. Ondoko taulan, ordaintzeko eskaerak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan jasotzeko epemugak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileari bidaltzeko taulan bertan adierazten diren datak igaro baino lehen, bai eta epe osagarriari dagozkion epemugak ezartzea ere, behar bezala beterik ez dauden edo akastunak diren eskabideei gagozkiela.

LAGUNTZA ORDAIN DEZAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE ORDAINZAILEARI BIDALTZEKO EPEA	LAGUNTZA ESKAERAK MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUAN JASOTZEKO EPEMUGA	BEHAR BEZALA BETERIK EZ DAUDEN EDO AKASTUNAK DIREN ESKAERAK OSATZEKO EPEMUGA
2019ko ekainaren 14a baino lehen	2019ko maiatzaren 24a	2019ko maiatzaren 31
2019ko urriaren 4a baino lehen	2019ko irailaren 13a	2019ko irailaren 27a
2020ko ekainaren 19a baino lehen	2020ko maiatzaren 29a	2020ko ekainaren 5a
2020ko urriaren 2a baino lehen	2020ko irailaren 18a	2020ko irailaren 25a

Nolanahi ere den, aurreko taulan ageri diren epemugetan osatzen ez diren eskaerak ordaintzeke geratuko dira eskaera osatu eta hurrengo bidalketara arte.

Hirugarrena. Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saileko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan aurkeztuko dira (zerbitzua Ardo Etxean dago, Arabako Guardian), astelehenetik ostiralera, jendaurreko ordutegian, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako prozedurari kalterik egin gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 12a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**  
*Nekazaritza zuzendaria*  
**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**